ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2018ko martxoaren 19a, astelehena • 33 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

91/2018 Foru Agindua, martxoaren 5ekoa, Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan inskribatzen duena Amurrioko udalerriko planeamenduaren arau subsidiarioetako Larrinbeko SAPUI 3 sektorearen (lehengo XII. sektorearen) Lankidetza Elkarte Administratiboaren desegitea

AURREKARIAK

Lehenengoa. Amurrioko Udalak, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2018ko otsailaren 22an sartu den idazki baten bidez, bidali du Amurrioko planeamenduaren arau subsidiarioetako Larrinbeko SAPUI 3 sektorearen (lehengo XII. sektorearen) Lankidetza Elkarte Administratiboa desegiteko erabakia, bidezko diren lege ondorioak izan ditzan.

Bigarrena. Herrilan eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren ekainaren 5eko 537/2001 Foru Aginduaren bidez, erabaki zen Amurrioko udalerriko planeamenduaren arau subsidiarioetako II. sektorearen Lankidetza Elkarte Administratiboa inskribatzea Arabako Hirigintza Elkarte Laguntzaileen Erregistroan.

Hirugarrena. Tokiko Gobernu Batzarraren 2018ko otsailaren 8ko erabakiaren bidez, onartu zen Larrinbeko SAPUI 3 sektorearen (lehengo XII. sektorearen) Lankidetza Elkarte Administratiboa desegitea.

OINARRIAK

Lehenengoa. Hirigintza kudeatzeko arautegiak 30.1 artikuluan xedatzen duenez, hirigintza erakunde laguntzaileak desegingo dira, baldin eta haiek sortzeko arrazoi izan ziren xedeak betetzen badira; eta desegiteko, hirigintza administrazio jardulearen erabakia beharko da betiere.

Bigarrena. Era berean, Amurrioko Udaleko idazkariak 2001eko apirilaren 11n ziurtatzen duenez Udal Gobernu Batzordearen aurrean eratu zen Amurrioko XII. sektorearen Lankidetza Elkarte Administratiboaren estatutuek honela diote, 5. artikuluan:

"Elkarteak muga gabeko iraupena izango du. Bakar-bakarrik desegin ahal izango da udalak urbanizazio obrak jaso eta, hala badagokio, urbanizazio kuotak kitatu ondoren, hala erabakitzen baldin badu elkarteko kideen batzarrak kideen gehiengoaz, zeinak partaidetza kuoten gehiengoa ere izan beharko duen.

Orobat desegingo da elkartea ezinezkoa baldin bada bere helburuak betetzea."

Hirugarrena. Kasu honetan, desegitearen zioa hura sortzeko arrazoi izan ziren helburuak bete izana da, Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko otsailaren 8an onartu zuen bezalaxe.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ezeztatu dadila Amurrioko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioetako Larrinbeko SAPUI 3 sektorearen (lehengo XII. sektorearen) Lankidetza Elkarte Administratiboaren inskripzioa Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 5a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108817
Fecha de firma: 2018.03.19 06:24:48 Z